


BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA

GURUTZE GORRIAREN NAZIOARTEKO
BATZORDEAREN ARTXIBOA GENEVAN.



GURUTZE GORRIAREN LEHEN ANBULANTZIA OROKIETAKO GUDUAN

1863an Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea sortu zen. Lehen urte haietan Nicolas Landa mediku militar liberalak oso aktiboki parte hartu zuen, urte batzuk geroago Iruñeko “Euskera” aldizkariaren sortzaileetako bat eta Donostian argitaratutako “Euskal-Erria” aldizkariaren kolaboratzailea izan zenak. II. Karlistaldian eta 1872ko maiatzaren 4ko Orokietako guduren ondoren, Landak, Orokietako zaurituei laguntzeko, Gurutze Gorriaren lehen ambulanzia izango zena antolatu zuen. Ambulanzia ez zen gaur egun ezagutzen ditugunak bezalakoa; garai hartan galdi, andazain, mediku, erizain eta osasun-langileen multzoa zen. Maiatzaren 5ean argazkilariarentzat posatu zuten, Orokietan, ambulantiako kideetako batzuek: Nicolas Landa banderari eusten, Palacios eta Oskia mediku kirurgialariak, Borra farmazialaria, Moratel praktikantea eta ospitaleko laguntzaileak: Iturralde Suit, Bonifacio Landa, Lagarde eta Egozkue. Argazkian espedizioaren gidaria ere agertzen da, Agirre.